



Arrasate

P R E S S

2001.eko
uztailaren 27a
351. zenb.



Monterron, herriaren altxorra



Oporretan ere



etxeko lanak banatu



eta udan...



urteurrenak



Roneo zaharra botatzear

■ 74. zenb.

1990eko uztailaren 27an idatzi genuen...

Udaleko azken Gobernu batzordean Roneo enpresa botatzeko aurreproiektua onartu zuten. Laukale enpresak Roneo enpresari lantegia erosi zion orube horretan etxeak egiteko. Lantegia noiz botako duten zehaztu barik badago ere, lehenbailehen botatzea espero dute; abuztuan, ziurrenik. Oraingoz, lantegia baino ez dute botako, Laukalek inguruko etxeetako biztanleekin akordioak ez duelako egin.

Joxe Letonaren artxiboa

■ 74. zenb.

1990eko uztailaren 27an idatzi genuen...

Hiru motatako dokumentuak eraman gura dituzte Monterroneko liburutegira: Jose Letonak etxean zituen liburuak, haren artxiboa eta Juan Carlos Gerraren zenbait karpeta. Liburutegia familiakoen esku geratuko da. Artxiboa, berriz, Monterronen gordetako dute, nahiz eta familiakoa izan. Juan Carlos Gerraren dokumentuak Euskaltzaindiaren Azkue liburutegira eramango dituzte, baina dokumentuok, mikrofilmata, Monterronen gordetzea espero dute.

Herriko %50 gasez hornituta

■ 74. zenb.

1990eko uztailaren 27an idatzi genuen...

Gas naturalaren horniketaren lanen bigarren aldia orain dela gutxi bukatu zen. Dagoeneko Arrasateko %50, gutxi gorabehera, gasez hornitu dute. Lan horiek 1989an hasi ziren eta guztira 10.000 metro hodi erabili zituzten. Gaur egun, Arrasaten 462 etxebizitzak erabiltzen dute gasa, baina urte bukaerarako 1.500 izatea espero dute, oraindik 1.100 eskaerari ez diote-eta erantzunik eman.

besteek esana



Orokorrean, gaiak lekuak baino garrantzitsuagoak dira: sorginak, euskal mitologia, sinismenak, ohiturak... Bandoen arteko gerren gainean historia asko dago, baina gutxitan suntsitu izan dituzte herriak oso-osorik. Halako kasu bakarra Arrasatekoa da. Garai hartan, Arrasate Bizkaiko jabegoa zen. Borroka bat azaldu behar baduzu eta biztanleria oso bat suntsitzeko adina basatia zela irudikatu gura baduzu, halabeharrez Arrasaten gertatutakora jo beharra daukazu».

Toti Martínez de Lezea

IDAZLEA

GARA

(2001eko uztailaren 22a)

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Olatora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martínez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemaketa:** Lorea Aginiano. **Banaketako arduraduna:** Naisara Odirozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Arrasateko Udaleraren
agintuzak

Gipuzkoako Foru
Aldundien laguntza

Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntza

aurkibidea

- Lehen begiratua 3
- Asteko hitzorduak 4
- Herritarren berbak 5
- Astearen errepassoa 6
- Inkesta 7

- Orain eta hemen 8/9
- Txutxumutxuak 10/13
- Asteko gaia 14/16
- Auzoz auzo 19
- Kitalak jokoan 20/21

- Kulturaren txokoa 22/23
- Beheko tabernatik 24
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26

ZERBITZUAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualtorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaiio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

abuztuko ordutegiak

Abuztuan, udal zerbitzuen ordutegiak honakoak izango dira. Gazte zerbitzua zabalik izango da abuztuaren 3ra bitartean, 10:00etatik 14:00etara. Sexologia zerbitzua itxita izango da abuztu osoan. Musakolako kiroldutegiak 09:00etatik 21:00etara zabalduko ditu

ateak, baina igerilekuak 09:30etik 20:30era bitartean izango dira zabalik. Iturripeko kiroldegia itxita izango da abuztu osoan. Kultura etxea itxita izango da abuztuaren 4tik 26ra bitartean; gainerako egunetan 09:30etik 13:30era izango da zabalik.

farmaziak abuztuan

Abuztuaren 1etik 15era bitartean, Azkoaga (Ferrerias), Azkoaga (Iturriotz), Corcuera (Aranbarri) eta Zabala (Zarugalde) farmaziak izango dira zabalik, txandaka. Abuztuaren

16tik 31ra bitartean, Ruiz (Magdalena), Morales (Araba), Irizar (Erguin) eta Amezua (Santa Marina) izango dira guardiako farmaziak.

alai zineman

Uztaileko azken asteburuan, *Planes de Boda* filma emango dute Alai zineman. Uztailaren

31n, oporrak hartuko dituzte, irailera arte.

gazte eguna

Segi erakundeak Gazte Eguna antolatu du Arrasaten uztailaren 28an. 13:30ean txotx egingo dute plazan; 14:30ean bazkaria gaztetxean; gero, bertsolarien emanaldia izango da. 17:30ean herri kirolak egingo dituz-

te Monterronen, eta 19:30ean Segiren aurkezpena izango da, Monterronen; jarraian, manifestazioa eta kontzertua, ondoko taldeekin: Su Ta Gar, La Polla, Anger eta Numen.

kontzertua gaztetxean

Uztailaren 30ean, astelehena, Mermaid stoner-rock talde iruindarrak eta Urola aldeko Autoa talde instrumental esperimentalak kon-

zertua emango dute. Arrasateko gaztetxean izango da, 22:00etan.

mekanizatu eta soldadura ikastaroak

Emakumeei zuzendutako mekanizatu eta soldadura ikastaroak abiarazi ditu Udaleko Enplegu Sailak. Uztailaren 30a izango da

izena emateko azken eguna. Horretarako, joan Udaletxera edo deitu 943 79 09 00 telefonora.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 27

- Zabala, Zarugalde

Zapatua, 28

- Azkoaga, Ferrerias

Domeka, 29

- Azkoaga, Iturriotz

Astelehena, 30

- Corcuera, Aranbarri

Martitzena, 31

- Zabala, Zarugalde

Eguaztena, 1

- Azkoaga, Ferrerias


Eguena, 2

- Azkoaga, Iturriotz

auto martxa

Udalak antolatutako uztaileko zinema emanaldien barne, hilaren 26an, eguna, Woody Allen-en *Acordes y Desacuer-*

dos filma emango da. Monterron parkean izango da saioa, 22:30ean. Sarrera doan.



OBRAK ETA BARRUKO PROIEKTUAK

Ferrerias, 17
Tel. eta faxa: 943 79 03 17
ARRASATE



Herriarren berbak

Sasi guztien gainerik

Omer Arregi / Segiko partaidea

Udaberrian izandako atxiloketen eta Hai-karen ilegalizazioaren ondorioz, gazteok gure ertronkei aurre egiteko antolakuntza tresnarik gabe gelditu ginen. Komunikabide askok, berriz, aurrez genuena baino irudi txarragoa atxiki ziguten, ideiarik gabeko burugabeak, sarraski eta txikiziozale lotsagabeak...

dena dela, hori guztia atzean geratu zen, 21 gazte-
ren kartzelaratzak eta izen baten ilegalizazioak ezer gutxi eman zieten.

Ekainaren 16an Euskal Herriko hiriburuan, Iruñean, batzar nazionala burutu zen eta handik beste gazte erakunde berri bat jaio zen: Segi. Gazte erakunde honek Euskal Herriko eragile eta sujetoak nazio izaera izatea ezinbestekoa dela pentsatzen du herri honentzat. Horregatik bere jardueraren partizioaren aurkako dinamika etengabea izango da. Beraz, argi dago. Segi proiektu politiko bat du, euskal gazteriarik Independentzia eta Sozialismoa eskaini nahi diona. Estatu zein mundu mailako zapalkuntzaren aurrean gure kultura, hizkuntza eta ekonomia bermatzeko independentzia bultzatu behar dugu. Eta gizakion arteko berdintasuna-

ren alde gabiltzanez, berdintasunean eta banaketan oinarritzen den eredu ekonomikoan, sozialismoan, sinisten dugu.

Bati baino gehiagori topikoez ari garela irudituko zaio, baina gure ustez hauxe dugu alternatiba erreal bakarra. Aurreko

belaunaldien puntu positiboak

hartu eta antolakuntza berri

batez Euskal Herriaren

alde zintzo aritzeko

prest gaude, hauxe

da gure fitxa per-

sonala: Gure era-

kundea anitza da.

Nahiz eta proiektu

berdinean lan egin,

izaera, ikuspegi, joe-

ra eta helburu ezberdi-

nak ditugun militanteok

osatzen dugulako. Segi eus-

kalduna da, euskara, gure komuni-

kazio tresnaz gain, gure jardueraren oina-

rria delako. Gaztea, hausnarketak gazte ikus-

pegitik egiten ditugulako eta gure lan espar-

ru naturala gaztearena delako. Iraultzai-

lea, zapalkuntza ororen aurka egoteak

iraultzai-
le bihurtzen gaituelako. Eta nazio-

nalista, euskal territorio guztia aintzat har-

tzen duena. Bihar Arrasaten egingo den

"Gazte Egunean" izango da gure aurkez-

pena, etorkizuna eraikitzeke ez dago gu

baino fitxaje hoberik!!

“Aurreko

belaunaldien

puntu positiboak hartu

eta antolakuntza berri

batez Euskal Herriaren

alde zintzo aritzeko prest

gaude”



aste gazte

■ INFORMAZIO TURISTIKOA

• Euskal Herriko eta mundu zabaleko informazio turistikoak dugu zure opor lekua ezagutzen joan zaitezten: foileto turistikoak, planoak, ostatua...

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, zuzenbideko oposaketak pres-tatzeko dirulaguntzak. Epea: abuztuak 13.

• Eroski taldeak dirulaguntzak emango ditu Bioetika eta Enpresa, Nutrizioa eta Osasuna eta Segurtasuna eta Elikadura arlo-etan ikerketak egiteko, goi mailako tituludunendako. Epea: irailak 14.

• Unibertsitatean goi mailako ikasketak egiteko izaera orokorreko bekak. Epea: urriak 15.

■ LANA

• Albaitarien gorputz nazionalerako 10 plazaren deialdia. Epea: abuztuak 6.

• Arrasateko Udalak hainbat postu bete gura ditu: euskaltegi-ko irakaslea, osasun laguntzaille tekniko, liburuzain laguntzaille, sei udaltzain, administrari laguntzaille eta kiroldegiko mantentze lanetarako ofiziala. Epea: irailak 8.

■ IKASTAROAK

• Emakumeendako mekani-zatu eta soldadura ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udalak. Ikastaroa irailean hasiko da eta arratsaldean izango da. Epea: uzta-lak 30.

• Zeinuen Hizkuntzako ikas-taroa, Gipuzkoako Gorren Elkar-teak antolatuta. Urritik aurrera, hiru mailatan. Epea: irailak 28.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65

USTEAK USTE

Okupazioaren erreferentea

Genoan egin den G-8 Taldearen Goi Bilera zela-eta, anti-globalizazioaren taldeak egindako salaketa kanpaina eraginkorraren berriek munduari buelta eman diote. Halako bilkura handietan tamalez ohikoa bilakatzen ari diren segurtasun neurrien gehiegikeriek manifestari ugari zauritu zituen oraingo bilkuran ere. Eta guztiok jakingo duzue, Carlo Giuliani gaztea poliziaren tiro batek hil zuen. Horrez gain, "boteretsuen bilkura" amaitu eta gero, poliziak globalizazioaren aurkako taldeen prentsa bulegoa eta gertuko etxebizitzak bortizki miatu eta atxilotak egin zituen, ahal zuen heinean aurkariak are eta gehiago kriminalizatzeko. Munduko gobernu boteretsuenek eta multinazionalen gorpuztutako kapitalismoak argi eta garbi erakutsi dute behin eta berriro aurkari guztiak ezabatu nahi dituztela, eta horretarako indarkeria basatia zein kriminalizazioa erabiliko dituztela azken muturreraino. Boteretsuen jarrera salatzen arrazoiak, ordea, ez dira falta.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Egitamu orokorrak

Oporostean, Udalak Egitamu Orokorraren gainean azalpenak emango ditu jendaurrean. Joan den astean erabaki zuen egutegia. Horrela, bada, irailaren 17an berbaldia egingo du egitamuaren edukia azaltzeko. Astebete geroago, irailaren 24an, beste berbaldi bat egingo du kudeaketaren gainean, egitamuaren izaera ekonomikoari buruzko arloarekin zerikusia duena azaltzeko. Eta hurrengo hilabetean beste bi ekitaldi egingo dira: hilaren 1ean mahai-ingurua, hainbat teknikariren parte hartzearekin; eta urriaren 8an beste mahai-inguru bat antolatuko da, oraingoan, udaleko ordezkari politikoen artean.

Horrez gain, eskuorri

informatibo bana ere jasoko dute herritarrek etxean. Eta Monterronen erakusketak izango da hilabetez.

■ Hezkidetzeta programa

Udalak erabaki du orain arte herriko zenbait ikastetxetan landu duten Hezkidetzeta Programak aurrera jarraituko duela. Erguin ikastetxearekin eta Arrasate-Aretxabaleta Institutuarekin eta Musakola ikastetxearekin jarraituko du lanean. Alde batetik, Erguinen eta institutuan aholkularitza zerbitzua izango dute Bea Ugarte eta Make Irigoienen eskuetik. Musakolan, ostera, Emaize Kolektiboa arduratuko da horretaz. Bestalde, umeen familietan Hezkidetzaren berri izan dezaten Hezkidetzari buruzko Bule-

tinak egingo dituzte eta hezkidetzeta saio batzuk ere emango dituzte. Milioi eta erdi pezeta inbertituko du Udalak lan horretan.


■ Gazteendako lekua

Bestek beste, gaztetxe berria, Emakumearen Txokoa eta musika taldeendako lokalak egiteko proiektua onartu du Udalak 275.195.877 milioi pezeta aurrekontua izango du. Orain, lan horiek egiteko eskaerak jasotzeko epea zabalduko dute eta Udalak zeini adjudikatu erabaki beharko du. Irailerako jakin-godu dugu zeinek egingo dituen lanak.

Gogora ezazue Uarkape pilotalekuaren atzealdean egingo dutela gazteendako gune berria.

■ Cerrajerako etxebizitzak

Udaleko Ingurumen batzordeak Udalarri eskatutako zenbait ezaugarri kontuan hartzeko Cerrajerako etxebizitzak egiteko orduan. Ingurumena errespetatzea eta energia berriztagarriak ahalik eta ondoen aprobetxatzea da helburua. Besteak beste, uste dute etxebizitzaren kokapena iparretik hegora izan behar dela; horrela, leiho handienak hegoaldeari begira jarriko lituzkete eta txikiak iparraldeari begira. Era berean, isolamendu termikoa %50 handitzea eskatu dute, modu horretan, berogailuaren kontsumoa bi heren aurrezten da-eta. Horrez gain, energia berriztagarriak hobeto aprobetxatzeko eguzki panelak ipintzea aholkatu dute. Ingurumen batzordearen ustetan, hori guztia kontuan izanez gero, kostuak gutxitu egingo dira eta bizi kalitatea hobetu.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarke kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Zein izengo da hirugarren Tourrien?

Arrasate Irratiko porran, gehixenek Belokiren alde egin daue



Maribel Sanz
(Jubilaue)

Beloki Pirinioetan erdi gai-xorik ibilli da, eta neure ustez, Kivilev aurretik geratuko da.



Igor Galdos
(Ikaslie)

Nahixago dot Beloki geraketie hirugarren, baiñe Kivilev aurretik doie, eta erreferentzia gehixago dauko.



Andoni Ezkurra
(Ikaslie)

Beloki aurretik geratuko dala uste dot, eta hori gureko neuke, gaiñera.



Juanito Arzamendi
(Jubilaue)

Neure asmue eta gogue da Beloki izetie hirugarren, eta seguru nago, gaiñera, egingo dauela.



Arantza Lejarraga
(Langillie)

Idearik be ez dauket, ez dot jarraitu-eta. Aukeran, hamen-go bat bada, hobe.



Edurne Erauskin
(Langillie)

Miñutu bateko bentajie dauko bestiek, eta erlojupekuen Belokik aurrie hartuko dotsala uste dot.



Iñaki Pérez Etxaniz
(Jubilaue)

Pentsetan dot Beloki izen-go dala hirugarren.



Maria Luisa Pérez
(Langillie)

Idearik be ez dauket. Ez dot Tourra jarraitu.

GORKA
ILEAPAINDEGIA

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Astearretik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:00

SOLARIUMA
10 saio = 6.000 pezeta

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Ibai Artek erasoak salatu ditu



Oraingo astean, Kilikolo dendari bi bider eraso egin diote.

Arrasateko merkatarien elkar-teak, Ibai Artek, herrian azkenaldian egin dituzten erasoak salatu ditu, Udalari aurkeztutako idatzi baten bidez. Hase-

rra azaldu du "dendetako erakusleihoak etengabe apurtzen dituztelako ganberroek". Era berean, adierazi du "horrelako ekintzekin lortzen den gau-

za bakarra dela dendariei ekonomia eta lan arazo larriak eragitea, eta ez, ordea, gure herriaren erdialdean giro atsegin eta dinamikoa sortzea".

ASPALDITIK

Mari Mar Martin Ibai Artek presidentea adierazi digunez, nazka-nazka egin da daude hainbeste apurketarekin. Ia asteburu guztietan agertzen da dendaren baten erakusleihoa puskatuta edo kolpatuta. Adibidez, oraingo astean, Kilikolo dendari bi bider eraso egin diote. Orain arte, Udaltzaingolari jakinarazi diote horrelakoren bat gertatu izan den bakoitzean, baina apurketak gaez izaten direnez, Udaltzaingoa ezin du ezer egin. Hortaz, orain, salaketa idatziz egitea erabaki dute.

Irailean erdigunea oinezkoendako

Herriaren alde zaharra dela eta, Udaltzaingoa txostena aurkeztu du. Alde zaharraren ezaugarriak batzen ditu txostenak. Hala nola, irailaren 15etik aurrera izango dela alde zaharra oinezkoendako. Hain justu, Erdiko kale, Ferrerrias, Iturriotz, Olarte, Maisu Arano, Seber Altube eta Maalako Errabala izango dira oinezkoendako kaleak; ibilgailuak 08:00etatik 13:00etara sartu ahal izango dira egunero, domeketan izan ezik; domeketan egun osoan itxita egongo dira kale horiek.

SALBUESPENA

Salbuespen moduan, martitzeno, arratsaldean ere zabalik egongo dira, 18:00ak eta 21:00ak bitartean, baina bakarrik alde zaharrean erroldatuta daudenendako eta zamalanak egin dezaten.

TXARTEL BEREZIAK

Era berean, alde zaharrean erroldatuta daudenak edo erroldatuta egon barik garezaren bat dutenek txartel berezia izango dute alde zaharrera sartu eta handik irteteko, baina bakarrik ibilgailua gargetetik sartu edo ateratzeko. Irailaren 1etik aurrera zabalduko da txartel horiek eskatzeko epea.

Hori bai, zenbait zerbitzu garrantzitsu ematen dutenek alde zaharra ixten duten piboten giltzak izango dituzte: suhiltzaileek, anbulantziek, Ertzaintzak, ehorzteez...

Bestalde, ibilgailuak beti Maalatik sartu beharko dira alde zaharrera eta Arrasate Pasealekutik irten.

Euskara erabiltzeko laguntzak

Udalak erabaki du hainbat dirulaguntza ematea Arrasateko saltokietako izena edo saltokiak berak jendearekin harremanetan jartzeko erabiltzen dituen agiriak euskaratzeko (fakturak, kartazalak, idazpuruak...). Udalaren ustetan, oraintxe da hori egiteko une egokia; izan ere, datorren urtarrian fakturatan eta agiritan pezetaren partez euroa erabili beharko dute dendariak. Hori dela eta, agiri berriak egingo dituzte. Aukera ona da, hortaz, agiri berri horiek euskaraz edo gaztelaniaz egiteko.

KOSTUAREN ERDIA

Gauzak horrela, Euskara batzordeak proposatu du agiriak euskaraz egiten dituzten



erakundeei kostuaren %50eko dirulaguntza ematea. Asko jota, 20.000 pezetakoa izango da dirulaguntza. Eta euskaraz eta gaztelaniaz egiten dituzten saltokiei Udalak %15eko dirulaguntza emango die, asko

jota, 15.000 pezeta.

Hori bai, bi baldintza bete beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko: testua zuzen idatzita egon behar da, eta bakarrik izatera ez ofizialeko saltokiak izan beharko dira.

Inaxio Oliveri izango da MUko errektore berria

Mondragon Unibertsitateko Errektore Kontseiluak egue-nean erabaki zuen, aho batez, Inaxio Oliveri izango dela unibertsitateko errektore berria. Oliverik 2002ko otsailan hartuko du kargua, Jabier Retegi erretiratzaren denean, alegia. Bitartean, datorren irailetik aurrera, biak batera arituko dira errektore lanak betezen.



Inaxio Oliveri.

Argazkia: Juan Carlos Ruiz - GARA

IKASKETAK

MUK 37 ikasketa eskainiko ditu 2001/2002 ikasturtean. Horietako hamaika ingeniari-tzarekin lotuta daude; enpre-sekin zerikusia duten zenbait ikasketa eskaintzen ditu, baita Maisutzarekin lotutako beste batzuk ere. Horrekin batera, 15 master eta graduatu

ondoko ikasketak egin ahal dira Mondragon Unibertsitatean. Era berean, datozen zortzi urte-otarako plan estrategikoa erelanda du Mondragon Unibertsitateak. Horren barruan, besteak beste, Mendeberri izene-

ko hezkuntza egitasmoa, ikerketa indartzeko asmoa, Garaia ikerketa-gunea eta bestelako herrialdeetara zabaltzeko politika nabarmentzen dira. Horiek dira Inaxio Oliverik izango dituen erronka batzuk.

ZUZENKETA

Bestalde, MUrekin lotutako zuzenketa egin beharrean gaude. Izan ere, joan den astean izendapen berriekin lotutako informazioa eman genuen, baina datu batzuk ez ziren zuzenak. Hain justu, adierazi genuen Oñatiko Fakultateko dekanok Jose Luis Abaunz erretiratu egingo dela, eta hori ez da zuzena. Horrekin batera, gaineratu genuen Jabier Retegik Humanitate Fakultateko dekanok postua utzi behar zuela; eta postua utzi behar duena Jesus Garmendia da, Humanitate Fakultateko dekanok. Hain justu, Jesus Garmendiak zuzendaritza utziko du eta haren ordez Jose Antonio Mendikute izendatuko dute.

Segi taldearen aurkezpena izango da Mondragoen

Segi taldeak Gazte Eguna antolatuko du Mondragoen. Bihar, zapatua, izango da, eta, hain justu, talde horren aurkezpen ekitaldia izango da. Taldeko kideek zera esan dute: "Hemen gazteok bizi baldintza hobekak lortu gura baditugu, elkartu eta borrokatu egin beharko dugu; eta lehen geneukan antolaketak puskatu egin digutenez, beste alternatiba bat bilatu gura dugu, desberdina, baina helburu berekin". Gazte proble-

matikari erantzuteko sortu den gazte talde independentista, abertzale eta iraultzaile moduan definitu du bere burua Segik.

EGUN OSOA

Ordu bata eta erdietan hasiko da jaia, sagardo txotx!-arekin herriko plazan. 14:30ean, berriz, herri bazkaria izango da gaztetxean, eta gero bertsolariak. Arratsaldean, 17:30ean jarraituko du festak

Monterronen egingo diren koadrilen arteko herri kirolekin, eta 19:30ean izango da Segiren aurkezpena Monterronen bertan. Gero, manifestazioa egingo da herriko kaleetan. Eta eguna amaitzeko, gauean kontzertua izango da Monterronen. Arrasateko Anger eta Numen eta Su ta Gar eta La Polla taldeek joko dute. Jaia guztiendako zabalik dagoela-eta, parte hartzeko dei egingo da Segik.

Ordubete geroago

Herri autobusak goiz hasiera-ko ordutegia aldatu egingo du. Datorren irailaren 1etik aurrera, goizeko 07:00etan irten beharrean 08:00etan irtengo da. Eta uztailaren 30etik aurrera, zubietako lane-gunetan, herri autobusa 09:00etan irtengo da 07:00etan irten beharrean.

Hilabeteko frogaldia izango du ordutegi berriak eta, edozelan ere, Udalak lehengo ordutegira bueltatzea erabaki dezake.

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-79 34 12



**Gambrinus
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



BANKU BERRIAK ARBOLAPETAN

Uztailak banku uzta oparao utzi du Arbolapetan. Begira, bestela, zelan ugaldu diren bankuak azken egunotan! Lehen bi zeuden, eta orain, behintzat, korrotxoa osatzeko bezainbeste. Ziur, egun eguzkitsuetan paseoan ibiltzen direnak erruz hurbiltzen direla eserleku hauetara.



IZENAREKIN ASMATU DUTE, BAI!

Argi dago Argi katua baino argiagorik ez dagoela. Udan, bero handia egiten duenean, katutxoa argi ibiltzen da, eta etxeko balkoiko jardineran jesartzen da, eguzkiaren argitara. Ikusi duzue inoiz paseoan zabiltzatela?



ARRASATEAR BAT GENOAN!

Genoan, (Italia) G-8 Taldearen Goi Bileraz zela-eta, globalizazioaren aurkako jardunaldiak egin dira, eta Xabi arrasatearra han izan da. Poliziaren jarrera basatitzat jotzen du Xabik, baina horren aurrean jendearen portaera bikaina azpimarratu du. Argazkian, poliziak tirokatuta hil zen Carlo Giulianiren omenezko graffitia duzue.



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 52 17

Estetika zentrua abuztu osoan zabalik!!

Ordutegia: Goizeko 8.00etatik arratsaldeko 19.00 etara (ordutegi jarraia)

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



www.ikatz.es

ERREBELATUAN ESKAINTZA



4 Errebelatu eta 3 ordaindu
Banaka ekarri dezakezuz !

ARRASATEN: Iturrioz,8

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



ZILARREZKO EZTEI ZORIONTSUAK

Placik eta Victorrek zilarrezko ezteiak egin zituzten ekainaren 12an; ospakizuna San Fermin Egunean egin zuten, uztailaren 7an, ale-gia. Gero, Tenerifen egun zoragarriak igaro zituzten. Zorionak, bikote! Eva, David eta gainerako senideen partetik, eta gure partetik ere!



GAZTELA ALDETIK BIDAIA

Hona hemen Arizmendi Ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasle batzuk, ikasturte bukaeran egin zuten bidaian. Segovia, Madril eta Toledo bisitatu zituzten, eta Madrilen geldialdi berezia egin zuten, hango jolasparkean.

25. URTEURRENA, HEZE SAMARRA

Eskualdeko ospitaleak 25. urteurrena bete berri du. Hori dela eta, hango langile talde batek txangoa egin zuen Bizkaiko kostaldean bisitatzeko. Bakio, Bermeo, Forua eta Gernikan egon ziren. Euria gogoz egin zuen egun osoan, eta azkenean, guardasola erosi behar izan zuten.



HAU INBIDIA!

Txatxilipurdiko lagun talde batek Bartzelonan egonaldia egin zuen uztailaren 5etik 9ra, eta hor dituzue hango adiskide batzuekin. Hiria bisitatzear gain, Tibidabo jolasparkean ere izan ziren. Azaroko zubian, berriz, Bartzelonako lagunak etorriko dira gurera.



SAN FERMINETAN ERE, PREMIN GOGOAN

Musakolako lagun talde honek urtero-urtero egiten du txango-
ren bat. Aurten ere ez dute kalerik egin, eta San Ferminetan
izan ziren, uztailaren 7an! Premin Sanpedro presoia musakola-
rra denez, harekin akordatu ziren.



IPARRALDEKO BISITA

Bisita izan genuen joan den astean Goienan: Iparraldeko Eus-
kal Konfederazioko partaideak etorri ziren. Michel Oronoz kon-
federazioko presidentea, Maitena Carment kontseiluko presi-
dentea eta Paulo Arzelus idazkaria izan genituen hemen.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Kultura eta aisialdia utzi historiko aproposa get


Monterron Arrasateko alde zaharraren alboan dagoen jauregi eta parke erraldoiaren ondareek osatzen dute. Mendean zehar gutxi batzuek bakarrik disfrutatu izan dituzte eta herriaren jabeago izatera pasa ziren biak duela ia 20 urte. Gerora, jauregia kultura etxe bilakatu da, eta parke erraldoia herritar guztiok erabil dezakegu.

Jauregi gehientsuenek moduan, Monterrongoak badu iragana eta historian era askotako pasarteak aurki ditzakegu. Baina, hasteko, azal dezagun Monterrongo kondeen nondik norakoak: Monterron izeneko leinuaren aztarnek XV. mende arte garamatzate. Hala ere, konde titulua 1869an lortu zuten. Karlos II.a errege zela, leinu hark koroaren aldeko ekintza ospetsuak egin zituen eta erregeak, emandako zerbitzuaren ordainetan, konde titulua eman zion sendiari. Horrela, Monterrongo lehen kondea Juan Antonio Andikano izan zen. Izatez, Alcalá de Henaresetik gertu dagoen herrixka bat da Monterron, eta hari dagokio izena, baina garaiko eskribau bat erratu eta "a"ren ordez "e" jarri zion izenari. Horrela, aurrerantzean, eta gaur egun arte, kondeen titulua Monterron izan da.

Arrasateko jauregi ezagunari dagokionez, Zarugalden dago. Berau noiz eraiki zuten ziur ez badakite ere, adituek diote lehenengo kondearen arrebaren (Maria de Andicano andrea) eta haren senararren (Aranguren kapitaina)

garaian (XVII. mendean) dagoeneko bazegoela jauregia. 1964an, eraikina monumentu historiko-artistiko izendatu zuten, garai hartatik hona ondoren zaindutako etxea izan da eta.

Txutxu-mutxu gisa, aipatu beharra dago historian errege, agintari eta pertsonaia ezagun asko egon izan direla Monterrongo jauregi eta parkean: Felipe IV.ak, koroa hartu zuen urtean, Monterron bisitatu eta eraikina errege-jauregi izendatu zuen. Izendapen haren adierazgarri, jauregiak ate nagusian dituen kate bereziak. Egungo kateak, ordea, ez dira lehenengoak, 1821. urtean izan zen Riegoren altxamenduan Eibarko milizianoek kate zaharrak kendu eta suntsitu zituzten-eta, Gora askatasuna behera kateak oihukatzen zutela; bestalde, Isabel II.ak eta haren amak, Maria Cristina erreginak, hamabost egun igaro zituzten jauregian 1845eko abuztuaren; Toscanako erregeak 1805ean Monterronen izan ziren atsedent hartzen; eta ezagun da Canovas del Castillo, gobernuko buru izandakoa, Monterrongo jauregian izaten zela sarri, Santa Agedako bai-



Herritar guztiok erabili dituzte Monterronek eskaintzen dituen askotariko aukerak.

nuetxetik bueltan. Askoz geroago, 1949ko abuztuaren 11n, Francisco Francok, haren emazteak, garaiko Kanpo Arazoetarako ministroak eta gobernuko hainbat agintaririk jauregiko parkean afaldu zuten.


Bestalde, XX. mendeko bigarren erdialdean, garaiko kondeek jauregia eta parkea uda garaian bakarrik erabiltzen zuten, dagoeneko Madrilen bizi ziren-eta. Gainontzean, jauregia eta parkea itxita egon ohi ziren eta uda partean, jabeak bueltatzen zirenean, garaiko herritarrak zur eta lur geratzen ziren haien luxu eta bisi-

ten berri jakiterakoan. Dena dela, poliki-poliki kondeen aberastasunak eta luxuak beherantze egin zuten, eta nagusiek diotenez, azken aldera kondesa herriko dendetara joaten zen erosketak egitera. Sendi haren kontu aipagarri bat, jende gutxitxok dakiena, honako hau da: antzina, 1816. urtean, Santiago Elias Aranguren kondea ezezagun batek hil zuen Zurging kantoian.

PARKEAREN ONDASUN NATURALA

Monterrongo parkea altxor botanikoa ere bada. Lehen

hartzeko ondare tu-gertuan



begiradan, lorategi ezin ederragoaz gain, bisitariak ez du aparteko ezaugarririk igarriko. Baina miaketa eginez gero, laster aurkituko ditu harrizteko moduko kontuak. Monterrongo parkean dago, esaterako, Gipuzkoako zuhaitzik altuena, sekuoia bat, eta har dezakeen altueragatik Sekuoia Erraldoia deitzen diote. Monterronen dagoena 60 metro luze da, eta zazpi metroko perimetroa du. Neurri horienagatik birritan jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako basogintza topaketetan lehenengo saria; bata,

1928an jaso zuen, eta bestea, 1999an.

Historian atzerago eginez gero, Monterrongo parkeko zuhaitz eta landareen gainean hainbat bitxikeria dago. Bada go han XVII. mende inguruan landatu zuten zuhaitzondo bat. Ustez, Monterrongo jauregi-ko kondearen senitartekoren batek Ameriketatik ekarritakoa da, aberastasun bila joan zenekoa. Ondoan, mota bereko beste lau zuhaitz daude, laurak ere txikiagoak.

Kantabriar basoetan ohikoa da hagina, baina gure ibarrean, aldiz, oso urria da; bada, Debagoienean dagoen hagin bakarra Monterronen dago. Eta kanpora, urrutira, joaten bagara, tropiko aldeko palmondo bat topatuko dugu. Tropiko azpialdeko erakusgarri, dozena erdi magnolia daude. Eta beste hainbat zuhaitz interesgarri izango ditugu bidean: altzifresak, izei gorri bat, Libanoko zedroak, pagoak, haritzak, ereinotzak, arteak, lizarrak, akaziak, ezkiak, likidantaborrak...

Jendeak eurenak balira bezala hartu ditu zuhaitzak denbora luzean; eta, izatez, bisitari guztiondako baldin badaude han, mirestea eta zer edo zer ikastea gauza bat da, baina hortik aurrera beste hainbat portaera ere izan dira, ez hain onuragarriak. Azaleak, banbuak, errodo dendroak... izan ziren garai baten Monte-

«Monterrongo parkea altxor botanikoa ere bada, espezie bitxiekin osatutakoa»


rrenon; baina orain, gehienak galdu egin dira, edo galarazi egin dituzte. Parkea bera ere arriskuan izan zen, Arrasateko ingurabidea handik pasarazi gura izan zutelako; zorienez, horretatik, behintza, onik irten da Arrasateko berdegune eder hori. Arazoak arazo, gaur egun Monterrongo parkeak Gipuzkoako ederrenetarikoa bat izaten segitzen du.

HERRIARENDAKO, AZKENEAN

Esan bezala, kondeak geroago eta gutxiagotan etortzen ziren Monterronera eta jauregia eta parkea zeharo utzita zeuden, batez ere, parkea. Haren alboan bizi zen sendi batek zaintzen zituen ondasunak, baina parkearen egoera ez zen batere ona. Zaindariatako batek txakur handi batekin jendea sartzea galarazten zuen eta, bitartean, parkea eta jauregia ez zituen inork ere erabiltzen. Halako altxorra alde batera utzita zegoela ikusten amorratuta, garaiko Komite Antinuklearrak, ibarrean lan egiten zuenak, parkearen erabi-

lera bultzatzea erabaki zuen. Horretarako, 80ko hamarkada hasieran okupazio sinbolikoa egin zuen parkean. Herritarrei, sindikatuerei eta beste talde batzuei deialdia eginez, han sartu, ateak zabaldu eta pankartak jarri zituzten, herritarrek Monterronen erabili ahal zezaten aldarrikatzeko. Zaindarekin tirabirarik izan zituzten, hark belarra ez zapaltzeko esaten zielako. Euren asmoa lortu zuten, ia herri osoa ekimenaz jabetu zen-eta. Garai hartan, Jose Antonio Ardantzaren zuzendaritzan Arrasateko alkate.

Garaiko protagonistek diotenez, abuztuko domeka bateko okupazio hura entzute suena izan bazen ere, gerora beste okupazio asko izan ziren. Herriko hainbat gazte batu eta auzo-lanak egin zituzten parkeko zaborra, txatarra eta sasiarta kentzeko. Horrekin batera, meriendak, afariak eta kontzertuak egin ziren ezohiko langile haien mesederako. Hala ere, data zehatzik ez du inork oroitzen. Esan beharra dago garai hartan Arrasateko tabernen "zona gorria" era-



Monterrongo jauregiak eta parkeak onura handia egin diote kulturari.

tzen hasi zela eta orduko tabernari batzuek, ekintza sinboliko haien protagonista izateaz gain, langileei jana eta edaria eramaten zietela.

Bestalde, Komite Antinuklearrek helburu nagusi gisa Lemoizen aurka egitea zuten arren, beste hainbat ekintza egin zituzten garai haietan: hain zuzen ere, Monterronen aldeko aldarrikapena, Oñatiko Dukeen parkearen okupa-

Gauzak horrela, Monterroni eutsiko diogu berriro. Esan beharra dago Komite Antinuklearraren kanpainak eragin handia izan zuela: besteak beste, 80ko hamarkadako lehenengo hauteskudeetako EAJ/PNVren programan, Monterrongo ondarea Udalak erosi gura zuela ageri ei zen. Gerora, 1983ko maiatzaren 6an, Monterrongo kondeek, Maria del Rosario Aranguren

«Komite Antinuklearrak aldarrikatu zuen Monterron herritarrek erabili ahal izatea»

zioa, Arrasateko Osteko Etxea kultura etxe gisa aldarrikatu zenekoa... Era berean, Akeiko zabortearen inguruko parodiak eta salaketa ekintza ugari: poluzioa, erreken garbitasuna, birziklapena eta beste asko. Eta ingurumenaren gainean ikerketa eta azterketa garrantzitsuak egin zituzten.

andreak eta On Miguel Alejandro Martínez Riverak, tratua egin zuten Arrasateko Udalarekin. Monterron jauregia eta parkea 44.760.000 pezetan erosi zituen Udalak. Gero, Udalak jauregia eta parkea adostutako beharretara egokitzeko 60 milioi pezetako gastua egin behar izan zuen.

KULTURA ESKAINTZA ABERATSA

Obrek luzera jo zuten eta azkenean, 1986. urteko maiatzean, Alvaro Arregi alkateak jauregi eraberritua eta parkea inauguratu zituen. Estilo barrokoa duen jauregi honetan liburutegi bina (txikiena eta nagusiena), berbaldi aretoa eta ikastaroendako aretoa egokitu zituzten. Gero, poliki-poliki, erai-kinaren goialdea, ganbara, presatuta eta hantxe argazki eta pintura ikastaroak, informatika gela eta bideoteka kokatu zituzten. Horiekin batera, hemeroteca eta Jokin Zaitegi liburutegia. Eta liburutegi horren barne Jokin Zaitegiren liburutegi bera, Urangaren eta Letonaren artxiboak, Juan Carlos Gerraren artxiboa mikrofilmatura, herriaren gainean azterketa eta ikerketak, eta abar.

Parkean, bestalde, ibiltzea errazteko bidezidor berriak, agertoki erraldoia eta harmailak jarri zituzten, besteak beste. Herritarrek gustura erabiltzen dute berau lasai-lasai egoteko, txakurrekin edo txakur barik ibiltzeko edo beste edo-

zertarako. Erdialdearen albo-alboan dago eta merezi du, gainera. Bestalde, Udaleko Kultura Sailak eta herriko beste zenbait taldek ehunka ekitaldi antolatu izan dituzte parke ikusgarri horretan. Horien artean, zerbait nabarmentzekotan, horra hor Udaleko Kultura Sailak antolatzen dituen uztailako ekintzak: hala nola musika emanaldiak, antzezlanak, eguenetako zinekluba, baita Arrasate Musikaleko Bandak San Juanetan egiten dituen emanaldiak ere. Parkean gauzak antolatzeko muga bakarrenetariko bat eguraldia da. Hain zuzen ere, euria eta hotza dira Monterrongo eskaintza kulturalaren etsai nagusi.

Udaleko Kultura teknikari Jon Garaik Monterronen jazotako zenbait pasarte ditu oroimenean: Ur antzerki taldeak *Sueño de una noche de verano* lana antzeztu zueneko. Sasoi hartan lan ezezaguna zen eta izugarrizko harre-ona izan zuen herrian; gero, berri, oso arrakastatsu bilakatu zen; era berean, Jonek ez du ahaztu *Wili* filma eman zutenekoa. «700 lagunek sarre-ora ordaindu zuten eta halako baten kameraren lanpara izorrratu egin zen. Langileak ez zeukan ordezko bonbillarik eta dirua bueltatu behar izan genion jendeari. Enpresa hura ez zen berriro Arrasatera bueltatu». Bestalde, pisua izan dute Monterronen egin diren bizpahiru pastoralek edo rock kontzertu gogoangarriak ere. Esaterako, Eduardo Mancebo "Portu" hil eta egun gutxira, domeka baten egin zioten omenaldi xume baina hunkigarria, eta beste hainbat kontzertu ikusgarri.

Bueno, nahikoa da. Monterronen izan bazara, orain apur bat gehiago dakizu, eta oraindik han izan ez bazara, bisita ezazu lehenbailehen, merezi du-eta.

Edertasunaren Gida

CARMEN

**Ile apaindegia
Solariuma**

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Jose Antonio
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSI
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

[I]LEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

**A
U
S
A
R
T**



Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa - Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60 / 943 77 21 58

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Lore

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT



Oñate, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

ML
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1
behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Hilero aterako dugu
Edertasun Gida. Zure zerbitzuak
iragarri nahi izanez gero,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO DK. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA - GAIBERRITZEA - ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96
- HONORIO IZQUIERDO Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22 ☎ 943 79 72 16
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajes, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian arsa bel) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkasteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B. ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisiklinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbelgiak) Azoka kalea, 4 (Mobilia) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Bartolome Deunaren jaiak



Abuztuaren amaiera aldera Bartolome Deunaren jaiak izango dira; hemen, Mondragoen, Uribarriko auzotarren jaiak dira. Eta ohikoa denez, jaiak aprobetxatuko ditugu Uribarriren gainean apurtxo bat gehiago jakiteko. Horretarako, Jone Bergaretxe auzo-alkatearekin egon gara, eta auzotarrak auzoarekin duten kezka azaldu dizkigu. Izan ere, inguru hartarako aurrez ikusita dauden egitasmoak beteko balira, Uribarri baserri-auzoaren itxura aldatu egingo litzateke zeharo.

SANTUTXO

Uribarrin ermita bat dago bide ertzean. Itxaropenaren Amaren ermita da eta Jonek kontatu digunez jende asko joaten zaio bisita egin eta mesedeak eskatzera. Baina, Erguin auzoa txukuntzeko egitasmoaren barruan, garajeak egingo dituzte ermita hori dagoen lekuan. Eta proposatu du ermita garajeen barruan ipintzea edo garajeen gainean jartzea, orain dagoen bide ertzetik kenduta. Gauzak horrela, auzotarrak ez daude horrekin konforme.

BARRENATXO

Barrenatxo izeneko baserriak ere kezka sortu du auzotarrengan. Jone Bergaretxek kontatu digunez 1600. urte inguru-

ruan bazuten baserri haren berri. Eta historia luzea dauka, gainera: mehatzetako mineralaren garbilekua izan da, baita errota ere; era berean, okre pintura landu izan dute han, baita harraskendako marmol konprimitua ere. Garai baten gaudu pentsu lantegia izan zen. Baina oso egoera kaskarrean dago. Auzo alkatearen esanetan inork ez du ezer egin hura zaintzeko eta, gainera, orain, lantegiak eraikitzeko lekua izatea gura du Udalak. Hortaz, etorkizun beltza du baserriak.

BASERRI GUTXIAGO

Eta, oro har, baserrien etorkizuna ez dute batere argi ikusten uribarritarrek. Izan ere, 1920an 36 baserri zeuden Uribarri eta gauregun 10 bat baino ez dira geratzen. Are gehiago, Jone Bergaretxek kontatu digunez herrian baserri gehien zituen auzoa izan da Uribarri; eta, gainera, auzotarrak baserrietik bizi ziren. Gasteizera joaten ziren mailukiak, landareak eta barazkiak saltzera. Berezik, Uribarriko azek ei zuten izen handia, eta ugari saltzen ziren.

Bestalde, Isasigain baserria ere galtzeko zorian da, Garaia egitasmoaren ondorioz. Hori ere oso zaharra da, egurrezko egitura dauka eta bi urtez komentua izan zen. Gerra kar-

lista batetik ihesi zetozen moja batzuk han hartu zuten babesa gerra bukatu arte.

Eta, bukatzeko, Egitamu

Orokorra bere horretan eginez gero, Gomestio baserriak ere aldaketaren bat zein beste izango luke.

Egitaraua

Abuztuak 23, eguena

10:30 jaiak hasteko suziri jaurtiketa
12:00 XII. Uribarriko Herri Krosa auzoko gazteendako
13:00 buruhandiak
18:30 pilota partiduak
20:30 buruhandiak
23:00 dantzaldia Hator taldearekin

Abuztuak 24, egubakoitza, Bartolome Eguna

11:00 suziri jaurtiketa
11:30 meza
12:00 umeendako jolasak
13:30 buruhandiak, eta gero sari banaketa
16:30 Uribarriko XXIV. Mus Txapelketa
22:45 bertso saioa (Lizaso, Egaña, Irazu eta Mendiluze. Gai jartzailea: Nikolas Segurola)
24:00 dantzaldia Alaitz eta Mainerrekin
03:00 X. Galtzontzilo eta Kulero lasterketa

Abuztuak 25, zapatua

11:00 suziri jaurtiketa
11:30 auzoko hildakoen aldeko meza
13:00 auzo txikiteoa
14:00 auzo bazkaria.
18:30 II. Bolo Txapelketa
20:30 buruhandiak
23:00 dantzaldia Haitzama taldearekin
24:00 XI. Bolo Txapelketa
03:00 azken traka



Txirrindularitza

Gazte mailako txirrindulariak Bergaran izan ziren aurreko asteburuan Santa Mariako X. proban. Lasterketak 95 kilometro izan zituen. Hogeigarren kilometroan zortzi txirrindularik ihes egin zuten. Talde horretan Aitor Frutos Fagor taldeko txirrindularia zegoen, eta

kilometroek aurrera egin ahalia Aitor Frutos eta Joseba Garmendia Lan Mobel taldekoa gelditu ziren lasterketa buruan. Azkenean, esprintean erabaki behar izan zuten lasterketa, eta Joseba Garmendiak irabazi zuen. Haien ondoren taldetxo bat iritsi zen, eta Aitor Blazque eta

Aitor Elortzak laugarren eta bosgarren postua eskuratu zuten, hurrenez hurren. Taldekako sailkapenean Fagor izan zen lehena. Domekan, Gipuzkoako erlojupeko txapelketa jokatu zen, taldeka, eta Fagor bosgarren izan zen. Lasterketa ona bete zuten taldeko txirrindulariek.



Datorren denboraldiko infantilak

Hurrengo denboraldian hainbat jokalaria berri izango ditugu Arrasateko kirol taldeetan. Canteras San Josepe taldeko gaztetxoek Gasteiz Cup-a eskuratu dute, eta

datorren urtean Mondra taldeko infantil mailan arituko dira. Gazte horiek entzaintzeko ardura David Zaitegik izango du, aurtengo erreional mailako entrenatzaile

leetako bat. San Josepe enpresak harrobi lanak egiten segituko du, baina irailetik aurrera Zaitegiri tokatuko zaio Arrasateko futbol harrobia bultzatzea.

Saskibaloia

Kenci Arrasate saskibaloia taldea datorren denboraldirako taldea prestatzen ari da. Denboraldi amaieran taldea entrenatzaile barik geratu zen, eta dagoeneko badakigu irailetik aurrera zeinek zuzenduko duen taldea. Iker Zubiria oñatiarra izango da Kenci Arrasateren entrenatzailea. Hainbat urtean Arrasateko jokalaria izan zen, eta gero Bilbora joan zen jokatzera. Orain dela hiru urte Arrasatera bueltatu zen entrenatzaile eta jokalaria lanak egitera, baina klubaren berrantolatze prozesua zela-eta, urte zaila izan zen hura. Aurreko urtean Oñatiko taldea entrenatzen aritu zen Iker Zubiria, eta aurreko etxeko taldea goiko mailara igotzen saiatuko da. Taldeak zuen lehen arazoa konpondu, denboraldia prestatzen buru-belarri jardungo dute, eta aurrendenboraldia inoiz baino lehenago hasiko dute, abuztuaren 20an, hain justu ere.

Okerrak zuzentzen

Aurreko alean, Gasteiz Cup-eko irabazleak JMA taldeko gaztetxoak izan zirela esan genizuen, baina ez genuen asmatu: izan ere, Gasteiz Cup-a JOMA taldeko lehen urteko eta bigarren urteko mutilek eskuratu zuten. Barkamenak, hortaz, JOMako taldeei.

Zikloturistak

Datorren martitzenean, San Inazio Eguna ospatzeko, hainbat ekitaldi izango dira Kanpanzarren. Horien artean, Arrasateko eta Elorrioko zikloturista taldeek, udalen laguntzarekin, bizikleta ibilaldia egingo dute.

ANE LOPEZ DE BERGARA (IGERILARIA)

« Ea Hungarian ondo nabilen, eta neure markak hobetzeko gai naizen »

Ourensen izan berri zara eta irailean Hungariara joango zara Espainiako selekzioarekin. Askotan joaten zara kanpora lehiatzera?

Urtean hemen izaten ditugu txapelketa gehienak, Tolosa, Ordizia, Tafalla, Iruñean,... baina aurten, adibidez, Murtzian izan gara Espainiako neguko txapelketetan. Apirilean jokatu genituen, baina negukoak ei dira (barreak). Oraingo hilean Ourensen jokatu den Espainiako Txapelketa izan naiz, eta lortutako emaitzei esker irailean Hungariara joango naiz Espainiako selekzioarekin.

Zer asmorekin joango zara Hungariara?

Helburu nagusia neure denborak hobetzea izango da. Azkeneko bi urteotan markak hobetzeko sasoi onean izan naiz, baina ez dut lortu, eta ikusi egin behar Hungarian ondo nabilen. Horrez gain, ikasteko asmoaz noa. Espainiak baino maila altuagoa duten talde asko izango dira, eta horietatik beti dago zer ikasi.

Asko zaintzen duzu jaten duzuna?

Aurten bai. Ez dut dietarik eginen, baina hidrato asko daukan janaria jaten dut, pasta, adibidez. Horrez gain, geroago eta koipe gutxiago izan, orduan eta hobeto. Hortaz, gurina, maionesa eta horrelakoak alde batera utzi behar ditut.

Zer-nolako probak atsegin dituzu?



San Viatorren ikasi zuen, eta orain dela bi urte Gasteizera joan zen IBEFeko ikasketak egitera. Esan beharrik ez dago neska honen bizitzan kirolak berebiziko garrantzia daukala. Irailean Hungarian izango da Espainiako selekzioarekin, eta abuztuan, lehengo aldiz, Arrasaten geldituko da entrenatzeko asmoarekin. Hortaz, udan parranda gutxi, nahiz eta horretarako ere izaten duen denbora.

Ez da gustuko ditudalako, baina distantzia luzeko probetan hobeto ibiltzen naiz. Zeharkaldiak ere asko gustatzen zaizkit, Bidasoako jaitsiera, hiru hondartzak Donostian, laku askotan zeharkaldiak izaten dira...

Igeriketa, lana edo bizibidea?

Biak. Orain Gasteizen ari naiz lanean, ume txikiekin egiten dut lan. Hidroterapiako ikastaroa egiteko aukera izan dut, eta polita izango litzateke arazoak dituzten umeekin uretan aritzea. Lehiatzea polita da, baina beste gauza asko ere egin daitezke.

"Asteburuan Laredon izan naiz, eta uretara sartu ere ez naiz egin"

Igeriketarekin harremana duen amets bat?

Ez dakit, askotan galdetzen diot neure buruari ea zergatik ari naizen honetan. Azken batean, kirola egiten hobeto sentitzen naiz. Gazteagoa nintzanean selekzioan sartzea ametsa zen, eta orain... Ez dut esan behar munduko txapel-duna izatea, azken batean hori ia ezinezkoa da-eta.

Zergatik ia ezinezkoa?

Asko entrenatu behar delako, beste modu batez bizi behar da, eta gauza asko albo batera utzi behar dituzu. Ez dakit horra iristeko prest egongo nintzatekeen, bizi ere egin behar gara-eta.

Eta igeriketarekin harremanik ez duen amets bat?

Bidaiatzea atsegin dut, eta, adibidez, belaontzi baten bidaiara egitea sekulakoa izango litzateke.

Kirol honekin bizitako esperientzia polit bat.

Esperientzia polit asko izan ditut, nahiz eta kiroletan une guztiak ez diren onak izaten. 1997an, junior mailan selekzioarekin joatekotan izan nintzen, baina azkenean ez nintzen joan. Hurrengo urtean Murtzian izan nintzen eta 1.500 metroetan Espainiako junior mailako marka hautsi nuen. Horri esker Italian izan nintzen Europako Txapelketa, eta hurrengo urtean Atenasen. Hortaz, une oso politak bizi izan ditut.

Lausardi koruak Arantzazun abestuko du

Debagoieneko Lausardi koru sinfonikoak -Goikobaluk, Bergarako Orfeoia eta Oñatiko Ganbara abesbatzak osatutako- emanaldia egingo du Arantzazun abuztuaren 17an. Joan den astelehenean egin zuten saio horren aurkezpena. Era berean, aurkezpen horretan Lausardiren logotipoa lehen aldiz jendaurrean erakutsi zuten.

500. URTEURRENA

Frantziskotarrek Arantzazun dramatzaten 500 urteen ospakizunen barruan dago Lausardiren emanaldia, baita Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan ere. Egun horretan, bi frantziskotar omenduko dituzte: Bitoriano Gandiaga poeta eta Tomas

Garbizu konposatzailea; azken horren jaiotzaren 100. Urteurrena beteko da aurten. Horrela, Lausardik Gandiagaren *Suari Kanta* abestuko du, baita Garbizuren *Misa Benedicta* ere, Arantzazuko beste hiru motetz gain. 50 bat lagunek abestuko dute, horien artean Iñaki Maidaganek, Goikobaluko zuzendariak. David Azurtzak, Bergarako Orfeoiko zuzendariak, lan hori bera egingo du oraingoan. Organo jotzailea, sopranoa, kontraltua, tenorea, baxua eta Bergarako Musika Eskolako haur abesbatza arituko dira koru sinfonikoarekin batera.

ORAIN ARTE, POZIK

Goikobaluk eta Bergarako Orfeoia sortu zuten Lausardi



Lausardiko arduradunak, koruaren logotipoarekin.

di Abesbatza. Taldea sortu zenetik hona, hirugarren emanaldia izango dute Arantzazuko; estreinaldia Arrasaten izan zuten, azaroan, eta pozik

geratu ziren emaitzarekin. Orain, abesbatzaren izaera finkatzeko logotipoa aurkeztu dute, Manu Muniategiandiakoetxea bergararrak egina.


Kooperatibismoa eta budismoa, anaiak?

Arrasateko kooperatibismoaren eta budismoaren arteko lotura badagoela azaltzen duen liburua argitaratu berri dute: *Arrasateko Errepublikako Teokratikoa*. Ramon Ugalde da egilea.

Ardatza Mondragoeko kooperatiben fenomenoaren eta budismoaren arteko antzekotasunen miaketa da; baina kooperatibismoaz gain, Arrasateko bizimoduak Lahsakoarekin zerikusia baduela frogatzen saiatzen da idazlea.

1998tik Berlingo Unibertsitateak eta Mondragoeko egindako lankidetzaren harira idatzi du Ugaldek liburua. Kooperatibismoaren eta Jose Maria Arizmendiarraren ganean azterketa egitea zuten helburu; azkenean, ondorio harrigarriak aurkitu zituzten.

Erromeria Kanpanzarren



Bertsolariak eta Trikitilariak egunean zehar

Uztailaren 31n, martitzena, erromeria eta jaia izango dira Kanpanzarren, Mondragoeko eta Elorrioko udalen eskutik. Izan ere, egun horretan egingo dute Arrasateko Udaletxetik Kanpanzarrerainoko bizikleta ibilaldia. Eta bestelako ekitaldirik ere izango da: kirolaz gain, musika eta jolasa izango dira protagonistak.

Eguerdiaren hasiko dira ospakizunak. 12:00etan doke

txapelketa izango da Elorrioren eta Arrasateren artean. Horren ondoren, mokadua egingo dute, eta gero, Euskadiko Selektzioaren Aldeko Iritzitzi Taldearen (ESAIT) Mendi Martxari ongi etorria egingo diote Kanpanzarren batutakoek. 15:00etan bazkaria egingo dute, eta bi ordu geroago, erromeria. Egun osoan bertsolariek eta trikitilariak jardungo dute giroa alaitzen.

Artista arrasatear bat, Tokiora

Imanol Bértolo artista arrasatearrak Tokion egingo den erakusketa baten parte hartuko du. Abuztuaren 17tik 26ra bitartean izango da Bértolo Japonian. Zurez egindako artelanak eta mihiseak izango dira ikusgai, baita bi teknika horiek nahastuta egindako lanak ere. 20 artelanez osatuko dute erakusketa.

Sudo Art Museum arte erakustokian izango da, eta Espainiako lau artistarekin batera erakutsiko du bere lana arrasatearrak. Horiestatik gehienak Piamonte 12 izeneko lantokian elkartzen dira, Madrilen, eta tailerraren izen bera izango du Tokioko erakusketak ere. Estilo figuratiboa eta abstraktua lantzen dituzte artista horiek.

JOSE RAMON ELKORO (ARRASATE BIG BAND-EKO ZUZENDARIA)

« Big Band-en helburua da ikasleek denetariko musika estiloak ikastea »

Arrasate Musikalen lan egiten du Jose Ramon Elkorok 1992a ezker; perkusio irakasle da han. Orain dela gutxitik hona, baina, beste jardun bat ere egiten du: Arrasate Musikal Big Band-eko zuzendaria da. Orain bi aste egin zuen jendaurreko lehenengo saioa Big Band-ek. Talde erritmikoa da, jazza, rocka, funkya, latinoia, eta abar jotzen dituen.

— Zelan sortu zen Arrasate Musikal Big Band?

— Iaz, zuzendari batzordeari proposatu nien big band bat egitea. Aspalditik zetorren proiektu bat zen, baina itxaron egin behar izan genuen, partaideek heldutasun jakina izan behar zutelako. Azkenean, oraintsu egitea erabaki dugu.

— Zenbat partaide zarete?

— Hamazazpi: hiru turuta, tronboi bi, bost saxofoi, abeslaria, bi perkusio jotzaile eta ni neu. Musikariak hiru sailetan banatzen dira: metalezko instrumentuek, turutek eta tronboiek osatua; zurezko saila, saxofoiek osatuta; eta erritmoaren saila, perkusioarena, alegia. Guztiak Arrasate Musikaleko ikasleak dira, 12 eta 23 urte bitartekoak.

— Bakarlariak ere badituzue, ezta?

— Bai, baina horiek musikarien mailaren arabera aukeratzen ditugu. Jeneralean, musika tresna sailek bakarlari bana izaten dute. Adibidez, ikasturte honetan bazegoen oso ondo zebilen gitarrista bat, eta hura aukeratu genuen. Geneuzkan musika jotzaileei begira sortu eta banatu ditugu lanak eta egitekoak.

— Zein helbururekin sortu zenuten?

— Hainbat estilo lantzen ditugu: jazz, funka, rocka, soinu banden moldaketak... Gure asmoa da ikasleek denetariko musika estiloak ikasi ahal izatea.



Inprobisazioak ere bere tarteak du.

— Zelan aukeratzen dituzue partiturak?

— Hasiera batean, nik aukeratzen nituen, baina musikariek ere parte hartu dute aukeraketan. Hortaz, bukaeran, errepertorioaren zati bat neuk prestatutakoa izan da eta beste bat musikariren aukerakoa.

— Zaila da moldaketak egitea?

— Bai, zail samarra. Partitura batzuk eginda aurkitzen ditugu, baina beste batzuk moldatu beharra dago, ez dagoelako bertsiorik. Bestalde, oraindik behar den mailara iritsi ez den musikariren bat baldin badago, lana errazteko, partiturak modu berezian prestatu behar zaizkio.

— Zer moduzko inpresioa utzi zizuen

emanaldi hark?

— Oso gustura geratu ginen. Ikusentzuleak pozik irten zirelakoan gaude, baita musikariak eurak ere. Kontzertua bandako partaideekin pentsatuta antolatu genuen: eurendako, hainbeste denbora prestatzen ibili ondoren, kontzertua ematea helburu edo jomuga antzekoa zen. Horrez gain, gure hasierako helburua zen hamabi bat pieza prestatzea, eta azkenean hamasei egin ditugu.

— Etorkizunerako zein asmo dituzue?

— Orain arteko errepertorioa hor geratuko da, eta hura lantzen jarraituko dugu, baina pieza berriak prestatuko ditugu. Horrez gain, jende askok, ikasketak direla-eta, alde egin behar izango du, eta hutsune horiek bete beharko ditugu. Dena dela, kontzertuak ematen segitu gura dugu.

« Kontzertuak ematen jarraitzea eta errepertorioa berritzea dira etorkizunerako asmoak »



Josu Uriarte Tamayo dendakue

Arrasateko enpresa baten baiño gehixagotan lanien ibilli eta gero, Tamayoko dendie ipintie okurridu jakon. Hamar urte daroie lan horretan, baiñe enpresan be gustora egingo leuke lan.

-Esaidazu guzur bat.

Zelako politte dan dana.

-Amets bat.

Herri honetan dagoen arazuakin danok konprometidutie.

-Amets txar bat.

Hirugarren mundu gerrie.

-Egin dozun azken biajie.

Landetara.

-Txartel horixe, zeïne?

Españiako gobernueri.

-Eta gorrixe?

Hori be Españiako gobernueri.

-Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Los padres de ella / La conjura de los necios / Musika melodikue gustetan jat.

-Animalixe izetekotan, zein?

Txakurre.

-Drogak legalizauko zittukie?

Batzuk bai.

-Eta prostituziñue?

Duda barik.

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikitue.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Etxien egoteko zapatillek, eta kalerako zapatak.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Herrixe bera gustetan jat, eta alde zaharra oso politte dago.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Herrixe politte geraketan badabil be, zikin samar egoten da, baiñe bide onetik goiezela uste dot.

-Eta lehendakari izengo bazitze?

Lehendakarixek lan asko daukela uste dot, bai Españiñan bai hamen be. Bixetako batekin hasiko nitzake, baiñe berehalaxe.

-Bizio bat?

Bat ez, asko.

-Ze deitoxozu Arrasate Press Goienkaria barruen sartziari?

Ondo, herri moduen baiño, ibar moduen pentsetan hasi biher gare-eta.

-Ze gehittuko zeikixo Arrasate Pressei? Eta ze kenduko zeikixo?


Ez neuke ezer be kenduko, baiñe kritikie falta jako, alderdixekin, udalakin,... eguneroko arazuekin.

-Mendi bat?

Udalatx.

-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Donostia gustetan jat.



"Herri moduen baiño, ibar moduen pentsetan hasi biher gare"

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Geure aitte.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Ez dauket iñor be goguen.

-Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeïnekin?

Je, je. Ez da neure estilue.

-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Informatibuek / *El quiosco de la Rosi.*

-Zertan gastauko zeunke dirue?

Bizitzen.

-Hondartza ala mendixe?

Mendixe.

-Idazteko, Bic-a ala Pilot-a?

Pilot-a.

-Ze saltzen dozue gehixen?

Egun honeittan, eskolarako materiala.

-Gustoko opari bat.

Biaje bat.

-Oporretan, nora?

Italiara.

Herriko irratia irailera arte oporretan

Abuztuan oporretan izango da Arrasate Irratia, baina egun osoan entzun dezakezue herriko irratia. Musika izango da entzungai; musika lasaia, alaia, edo egun boladan dagoena entzun gura izanez gero, ez ahaztu 107.7an

izango duzuela hori guztia.

Irailaren 10ean itzuliko da irratia lanera. Hil horretan udako saioekin segituko dugu: 09:00etan *Albistegia*, 09:30ean *Udako Kotelera* eta eguerditik aurrera *Jai Dagin*.

Maillot horia falta da


Hiru maillot eman ditu Arrasate Irratiak, eta Tourreko porra irabazten duenak maillot horia jasoko du bizikletarekin batera. Aurten ere jende askok parte hartu du Tourreko porran, eta guztioi eskerrak eman beharrean gara.

Irratian aritu gura duzu?

Irratian irratsaioren bat egin gura baduzu, bakkrik edo zure lagunekin, Arrasate Irratiak horretarako aukera eskaintzen dizu. Buruan duzun saioa egin gura izanez gero, zatoz irratiara eta eman iezaguzu zure asmoen berri. Urrian hasiko du irratiak gaueko emanaldia, eta zuek ere irratian aritu gura baduzue, hemengo ateak zabal-zabalik dituzue.



Abuztuan ere, busti zaitez Arrasate irratian!





Uribarri auzora joko dugu oraingo asteko argazki zaharrek. Abuztu amaieran auzoko jaiak ospatuko dira, eta orduan oportetan izango garenez, oraintxe egingo diogu bisita auzoari.

Orain dela 40-50 urte ateratako argazkia da, ustez Valeriano Martínez argazkilaria ateratakoa. Ez dago oso argi nondik atera zuen. Batzuek esaten dute Santa Barbaratik aterata dagoela eta beste batzuek, aldiz, Kurtzetxikiko ur biltegitik.

Kontuak kontu, argazkiak erakusten digu Uribarri zelakoa zen; izan ere, gaur egun, desagertuta daude argazkian agertzen diren etxebizitza eta baserri gehienak. Eta desagertuta ez daudenetariko asko desagertzeaz daude Garaia egitasmoa dela-eta.

Bitxikeria moduan, hor aurrealdean agertzen den etxebizitza Arrasateko okindegia zen.

Argazkia eta berriemailea: Jone Bergaretxe.

ORAINDIK BADUGU ABUZTURAKO PLAZARIK...

Hori da eskaini ezin dizugun bidaia bakarra...



...oraingo.

Irteerak BILBOTik:

TENERIFE Apartamentua 2 G (OB)	73.800
LANZAROTE Apartamentua 2 G (OB)	82.600
PALMA MALLORCAKOA Hotela***(OG)	74.400
MENORCA Hotela***(ME)	130.100
IBIZA Hotela***(ME)	108.400
TUNEZ Hotela***(ME)	87.100
TURKIA Hotela***(OG)	85.500
PRAGA Hotela***(OG)	90.900

Dolarraren gehigarria eta tasak ez dira banean sartzen

... eta, Gainera, Zirkuituak, Egonaldiak Kostan, Bidaia bereziak Familientzat.

Irteerak MADRIDik:

MAROKO Hotela****(ME)	86.200
EGIPTO (Itsasontzia) Luxu Handia+Tur.H (OB)	141.800
ESKOZIA (Gazteluak eta lakuak)	132.900
MALI (Dogon Herria)	180.900
SENEGAL (Diolen bidea)	179.900
KANADA (Ekialdeko hirburuak)	167.600
GUATEMALA eta ANTIGUA	154.900

HALCON
— VIAJES-BIDAIK —

Norekin ibiliko zara hobeto!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 902 300 600



BASATI TABERNA

Pintxoak • Bokatak • Traguak

Eskerrik asko
lehen urte honetan
geurean izan
zareten guztioi

**Abuztuan
zabalik!!**

Ferrerias, 19 • ARRASATE
Tel.: 943 71 17 68



Aukera hau galdu behar duzu ?

Opel Corsa Berria

1.410.000 pezeta*.

OSAGARRIAK

- 1.2 16V 75eko Zaldi Indarreko motorea.
- Gidariarentzako airbag-a.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Segurutasun-gerrikoak prentsoarekin.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Funtzio anitzeko pantaila.
- Mantenimendu azterketaren adierazlea.
- 30.000 Km-eroko mantenimendua.
- Faro piztuzeko alarma.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.



Opel Astra

1.804.000 pezeta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 84ko Zaldi Indarreko motorea.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Zafira

2.643.000 pezeta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Zazpi leku.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko larruzko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Vectra

2.450.000 pezeta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Aire girotua.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 10 urteko bermarekin.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1,2,3 aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

* PVP fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Prezioak barne hartzen ditu garrailoa, BEZ eta matrikulazio zerga. Prever plana berundun gasolinako autoendako eta promozio-deskontua auto hauetan: Corsa Club 1.2, hiru ate 16V 75hp, pakete elektrikoarekin (8.474 euro), Astra Club 1.6 hiru ate 8V 84hp (10.842 euro), Vectra Comfort 1.6 16V 100hp (14.725 euro) eta Zafira Comfort 1.6 16V 100hp (promozio-deskontuarekin) (15.885 euro).

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Tel.: 943 77 30 10.